## 1/89 ZIRKULARRA, abuztuaren 3koa, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarte Segurantza Zuzendaritzarena, BASEen publizitateari buruzkoa

34/1988 Legeari (azaroaren 11koa, Publizitatearen Lege Orokorra) jarraikiz, eskudun diren administrazio-organoek aukera dute, BASEetara elkartutakoak edota kontsumitzaileak defendatze aldera, iragarleari legezko ez den publizitatea utzi edota zuzen dezan eskatzekoa; publizitate hori beren kabuz jarria nahiz hedabideekiko publizitate-kontratuen bidezkoa izan daiteke. Zuzendaritza honek honakoa xedatu du:

BASEek, beren kabuz edota publizitate-kontratuen bidez, gauzatu nahi duten publizitate orok, hedatu aurretik, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Gizarte Segurantza Zuzendaritzaren adostasuna behar du, administrazio honek *a posteriori* egin ditzakeen jarduerak eragin ditzakeen kalteak saihestearren.

*Vitoria-Gasteiz, 1989ko abuztuaren 3a*

*GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARIA*

*Pedro María de la Torre*